

## Txernobyngo hondamendiaren itzala ez da desagertu

Azkenaldian, kutsu baikorra duen ikerketa bat baino gehiago argitaratu da, Txernobyl inguruko egoerari buruz. Esaterako, baieztatu zuten erradioaktibitateak kutsatutako eremuan ugari izen ari direla ugaztun handiak. Are gehiago, Ukrainiak eremua ingurumen-santutegi izendatuko duela adierazi du. Alabaina, Txernobyngo zentral nuklearrereko hondamendiak utzitako [ondorioak](#) ez dira desagertu.

Horixe ohartarazi du beste batzuen artean *The Lancet* aldizkariak, Txernobyngo hondamendiaren 30 urteurrenari buruzko artikulu batean. Izenburua argigarria da: “[Ikasi gabeko lezioak](#)”. Egileak, Chris McCallek, istripua gertatu zen garaian zentral nuklearrean lan egiten zuen lekuko batekin eta osasun-adituekin osatu du artikulua.

Haren arabera, istripua gertatu zenean hainbat akats egin zituzten segurtasun-arduradunek eta agintariek: bereziki, informazioa ezkutatzea. Horrek ondorio larriak izan zituen zentralaren inguruan bizi zen jendearen osasunean. Hondamendiaren hurrengo asteetan 28 pertsona hil ziren, erradioaktibitatearen ondorioz. Gerora, beste zenbait gaixotasun ohiz kanpoko prebalentziarekin azaldu dira: tiroideetako minbizia, kataratak, larruazaleko gaitzak...

Osasun-arazoetatik harago, McCallenentzat Fukushima da Txernobylek utzitako lezioa ez dela ikasi frogatzen

duen ebidentzia nabarmenena. Eta ez segurtasun-akatsak egon zirelako bakarrik —lurrikarak ohikoak diren leku batean egotea, adibidez—, baizik eta jendea ez zutelako behar bezainbeste informatu gertatutakoaren eta arriskuen gainean. ●



Txernobyngo zentralaren 4. erreaktorea eta oroimenezko plaka. ARG.: MATTI PAAVONEN/CC-BY-SA 3.0

## Gaixotasun zeliakoarekin lotutako gene bat identifikatu dute

EHUko ikertzaileek parte hartu duten nazioarteko ikerketa batean ikusi dute RNA ez kodetzaile batek (lncRNA) eragina duela gaixotasun zeliakoa duten pertsonetan. Gainera, lncRNA horrek gaixotasun zeliakoa izateko arrisku-faktorea den aldaera bat du, eta horrek eragina areagotu dezakeela ondorioztatu dute ikertzaileek.

Dagoeneko identifikatuta zegoen zeliakia garatzeko generik garrantzitsuena, baina nahiz eta populazioaren % 40k duen gaixotasun zeliakoarekin lotutako genearen aldaera, %1k baino ez du garatzen gaitza. Horren atzean egon daitezkeen arazoak ezagutu nahian, ikertzaileek

RNA ez kodetzaileari jarri diote arreta hor egon daitekeelakoan gakoa, eta [Science aldizkarian argitaratu dute ikerketa](#).

Ainara Castellanosekin batera ikerketan parte hartu duen EHUko ikertzaile Jose Ramon Bilbao azaldu du horren zergatia: “Azken urte


hauetan egindako asoziazio genetikoko ikerketetan gaixotasunak pairatzeko arriskuekin lotutako aldaera genetikoko pilo bat aurkitu dira, baina gehien gehienak genoma ez kodetzailean (edo genoma zaborrean) kokatuta.

Aldi berean, genoma ez kodetzaile horretan elementu erregulatzaile desberdinak aurkitzen joan gara (RNA ez kodetzaile mota desberdinak, alegia”).

Orain egin dituzten esperimentuetan, gaixotasun zeliakoarekin erlazionatutako gene ez kodetzaile bat aurkitu dute: “lncRNA bat da, lnc13 izena duena”, zehaztu du Bilbao. Haren funtzioa aztertu dute, eta ikusi dute gaixotasun zeliakoa gartzearekin lotutako geneen espresioa erregulatzen duela; espresioa apaldu egiten du. Zeliakoetan, baina, lnc13 oso gutxi dago. «Horren ondorioz, hesteetako hantura eragiten duten geneen espresioa areagotuta dago. Gainera, zelia-

koetan ohikoago den aldaera genetikoa erregulazio ahalmena murriztagoa dauka, eta horrek inflamazioa bultzatzen du», esplikatu du Bilbao. Hain zuzen ere, hesteetako inflamazio hori da elikagaiak xurgatzea oztotatzen duena.

Ikertzailearen esanean, “lan honek RNA ez kodetzaile baten erregulazio funtzioa zehatz mehatz azaltzen du, eta gaixotasun arrunt batekin lotzen du, gainera. Dimentsio berri oso bat zabalitzen da, ikerketa lerro berria, non genoma ez kodetzaileetako aldera genetikoen funtzioa ikertuz, gaixotasunen garapena ulertuko dugun eta agian itu terapeutiko berriak aurkituko diren”. ●



RNA ez-kodetzailearen aldaera bat gaixotasun zeliakoarekin lotuta dagoela erakutsi du ikerketak. ARG.: SANKAR GOSH/SCIENCE.